

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GAUBEAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaindu behar dutenen 2020ko errolda jendaurrean eta kobratzeko moduan jartzea

Behin-behineko onetsi delarik Gaubeako udalerriko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga 2020an ordaindu behar dutenen errolda, espedientea hamabost egun baliodunez egongo da jendaurrean udal idazkaritzan, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodun aurrera, aztertu eta egoki jotzen diren erreklamazioak aurkez daitezzen.

Erreklamaziorik aurkezten ez bada, espedientea behin betiko onetsizat joko da.

Borondatezko aldiko dirubilketa 2020ko ekainaren 1etik irailaren 30era artekoa izango da, egun biak barne.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2020ko ekainaren 30ean kobratuko zaie.

Ordainketa inongo banketxe edo aurrezki kutzatan helbideratu ez duten zergapekoek udal bulegoetan ordaindu beharko dute, borondatezko aldian.

Bankuetan helbideratutako ordainketak: udalak izapidetuko ditu. Zergadunei gogorarazten zaie ordainketen banku helbideratzeen altak edo aldaketak Gaubeako Udalean izapidetu behar direla.

Borondatezko aldia amaituta, ordaindu gabeko kuotak premiamenduko betearazte bidean sartuko dira, eta lege ezarritako errekarquak, eta, hala badagokio, berandutze korrituak eta kostuak sortuko dituzte.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Gaubea, 2020ko ekainaren 1a

Alkate-lehendakaria

JUAN CARLOS RAMÍREZ-ESCUDERO ISUSI